

MATRIKULA LIBREARI BURUZKO INFORMAZIOA **2011 – 2012 IKASTURTEA**

1. SARTZEKO ESKAKIZUNAK

- Adina: Ezinbestekoa da 16 urte beteta izatea 2012an.
- Hizkuntza: Hizkuntza berean, pertsona bakoitza Eskola eta maila bakar batean matrikulatu ahal izango da araubide librean. Norbaitek bi hizkuntza desberdinetan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bana egin beharko du.

2. MATRIKULA EGITEKO PROZEDURA ETA JARRAIBIDEAK

Matrikula internet bidez egin beharko da, <http://eoieuskadi.net> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/hizkuntzak> web orrietan sartuz.

Matrikula egiteko epea 2012ko otsailaren 10eko 00:00tik martxoaren 1eko 15:00ak arte izango da.

Martxoaren 12an onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak Eskolan eta web orrietan argitaratuko dira. Onartuta izan ez direnen kasuan, baztertzearen arrazoia zehaztuz.

Behin-behineko zerrenden kontra erreklamazioak aurkezteko epea 2012ko martxoaren 20an amaitzen da.

Martxoaren 28an onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak Eskolan eta web orrietan argitaratuko dira. Onartuta izan ez direnen kasuan, baztertzearen arrazoia zehaztuz.

3. PREZIO PUBLIKOAK ETA ORDAINKETA

Hizkuntza eta maila bakoitzeko prezio publikoak
34,34 €

Salbuespen eta hobariak

Maila orokorreko familia ugaria, %50ren beherapena

Maila bereziko familia ugaria, kuota osoa salbuetsita.

Era berean, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonen kuota guztia salbuetsita izango dute.

Ordainketa

Matrikula formalizatzeko dagokion prezio publikoa ordainduz egingo da Administrazioaren Ordainketa pasabidearen bidez ezarritako prozeduraren bat erabiliz, otsailaren 10eko 00:00tik martxoaren 1eko 15:00ak arte. Horretarako, www.eoieuskadi.net web orrian sartu beharko da.

Posible izango da:

- on-line ordainketa (Internet bidez). Ordainketa ordenagailu batetik egingo kreditu-txartelaren edo banku elektronikoaren bidez.
- off-line ordainketa. Ordaintzeko errekerimenduaren agiria lortu behar da, eta agiri horrekin banketxe edo kutxazain automatiko batera joan beharko da ordaintzera.

Prezio publikoa ordaindu beharrik ez dutenek ere matrikulatzeko prozedurarekin jarraitu beharko dute ordainketa-gutuna inprimatu arte; gutun horretan agertuko da ez dutela ezer ordaindu behar. Ordaiketa-gutuna inprimatzen ez bada, matrikula prozesua ez da burutuko eta, beraz, matrikula ez da baliozkoa izango.